

Azken Mahai Negoziatzailea, galdutako aukera berria

Atzo, azkenik, Haurreskolak Partzuergoko Mahai Negoziatzailea bildu zen. Hiru hilabete itxaron behar izan ditugu horretarako, hainbatetan bildu zedin eskatu eta gero. Tamalez, ohitura bihurtzen ari den bezala, apenas izan genuen pisuzko edukirik.

Hiru gaien inguruan laburbildu dezakegu atzo jorratutakoa:

- **Lan Hitzarmeneko 47. artikulua:** Borondatezko eszedentziak.

STEILASek 2019ko apirilaren 9an aurkeztu zuen proposamena berretsi zuen atzo. Proposamen honek LEP arteko kontratua duten hezitzaileen inkorporazioari konponbidea ematen die eta langile finkoen lanpostuen erreserba ziurtatzen du, Lan Hitzarmenak dagoeneko aitortzen digun eskubidea bermatuz eta zabalduz. Dena den, gaur bertan (2019-12-10) epaitegietatik gai hau guztiz baldintzatuko duen ebazpen judizial bat iritsi zaigu. Ebazpen honek behin-behinekoak diren langileei borondatezko eszedentzia disfrutatzeko eskubidea aitortzen die, ezberdintasunik egin gabe. Enpresak ezusteko honen aurrean hartuko duen erabakiaren zain gaude orain. Bitartean, **STEILAS** sindikatuak langileen eskubideak babesten dituen proposamena defendatzen jarraituko du.

- **Gurasotasunaren** aginduari buruz aritu ginen. Enpresak agindua interpretatu behar omen du eta gurean nola aplikatu aztertuko duela adierazi zigun.
- **Kudeaketako lankideen** gaiak:

Eusko Jaurlaritzaren proposamena baloratu eta gero, Lanpostuen Balorazio Batzordea (LBB) sortu genuen langile hauen funtzioak, ekiparazioa eta plantilak lantzeko. Urte betez lan hori guztia garatzen egon ostean, Administrazioak atzo Mahai Negoziatzaileira eraman zigun proposamenean ez da aintzat hartu LBBak plantilekin egindako lana.

Bi aitzaki jarri dizkigute berain planteamendua defendatzeko: azken bi ikasturteetan Haurreskolak Partzuergoak gabezia ekonomikoarekin bukatu duela eta aurrekontuen legeak ez duela plantilak handitzeko aukerarik ematen.

Eusko Jaurlaritzak berak proposatutako estrategia ez da bide zuzena izan eta, orain, urte bat pasatu denean, beste bide bat jorratu behar dela dio. **STEILAS** sindikatuak negoziazioari eta elkarlanari aukera bat eman zion iaz baina, berriz ere, EAJk iruzur egin digu. Ondorioz, izan zezakeen sinesgarritasuna guztiz galdu du.

Argi dago, Haurreskolak Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzari presioa sartzeko mobilizazio bideari jarraipena ematea aukera bakarra dela. Bide horretan, **STEILAS**ek sindikatuen arteko elkarlana bilatuko du aurrerantzean.

Begibistakoa da Mahai Negoziatzaileen dinamika ez dela batere emankorra. Enpresak eta LAB sindikatuak sinatutako akordioa ez da betetzen ezta garatzen ari. **STEILAS** sindikatuak Administrazioari Haurreskolak Partzuergoko negoziaketan zintzotasuna, gardentasuna, inplikazioa eta ardura eskatzen dio.

